

Baloreen enkantea.

Hurrengo koadroan oinarrituz, gelan enkante bat egiten da, baina objektuen ordeztu balio hauek enkantean jartzen dira (tutoreak edo ikasleek antzeko beste batzuk proposa ditzakete):

BALIOA, OBJETUA	NIK	TALDEA
1. Ikasturtearen amaieran gai guztietan bikain ateratzea.		
2. Ingurumenari buruzko munduko arazoak konpontzea.		
3. Egun bat igaro gogokoen duzun aktorearekin.		
4. Bizitza osoan osasun ona izatea.		
5. Munduko pertsonarik erakargarriena izatea.		
6. Urtebetez nahi dudana jan ahal izatea.		
7. Ondo moldatu beti bikotekidearekin.		
8. Opor ezin hobeak zure gurasoentzat.		
9. Supermerkatu bateko 20 erosketa karro.		
10. Hilabeteko epean Gobernuako presidentea izatea.		
11. Bidaia bat munduan zehar.		
12. Benetako lagun bat izatea bizitza osorako.		
13. Etorkin guztientzako etxea eta eskola.		
14. Jolaserako areto bat zuretzat.		
15. 150 urtez bizi.		

Lehenengo zutabean, balio, sari, desio, objektu eta abar batzuk daude. Ikasle bakoitzak 1etik 5.era hautatuko ditu berarentzat garrantzitsuenak diren bost balioak. Gero, 4 bat ikasleko taldeka bilduta, akordio batera iritsi eta bost garrantzitsuenak aukeratu behar dituzte, ordenean.

Ondoren, 15 baloreen enkante bat egiten da klasean. Talde bakoitzak nahi duen guztietan egin dezake eskaintza, baina jakinda ezin duela guztira 1.000 puntu baino gehiago gastatu. Horretarako, talde bakoitzak bokal-bozeramaile bat izendatu beharko du, eta bera izango da taldea ordezkatzuz eskaintza egin dezakeen taldeko pertsona bakarra.

Enkantearen amaieran, talde bakoitzak zer balio eramaten dituen eta hasierako aukeraketarekin bat datozen berrikusten da.